

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
ADMINISTRAZIOA

2

ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMOKO
ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

Gipuzkoa Quantum dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileen aldaketa eta 2023ko deialdia.

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2023ko otsailaren 21ean:

2022ko uztailaren 26ko Diputatuen Kontseiluko akordioaren bidez, Gipuzkoa Quantum laguntza-programaren oinarri arautzaileak eta 2022rako deialdia onetsi ziren, I+G teknologia kuantikoak garatzen laguntzeko proiektuak lagunduz. Programa hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren estrategia baten esparruan kokatzen zen, zeinak, Eusko Jaurlaritzarekin bat, Euskadi teknologia horien erreferente bihurtu nahi baitu.

Oraindik garatzeke dauden teknologiak badira ere, Gipuzkoak ikerketa-taldeak zituen kuantikaren esparruan lanean, eta hazkunde-potentzial handiko start-up bat. 2021eko irailean, jarduera-protokolo bat sinatu zen Eusko Jaurlaritzarekin, Donostia Teknologia Kuantikoen Poloa sustatzeko, eta urte horretan bertan, planteatutako helbururantz aurrera egiteko estrategia bat definitu zen, eta ikerketa-proiektuak babestu ziren. 2022an beste urrats bat eman zen, teknologia horiek enpresa-ehunera iristea. Helburu nagusi horrekin jarri zen abian Gipuzkoa Quantum programa, enpresen edo enpresetako I+G unitateen I+G proiektuak laguntzera bideratua, teknologia kuantikoetan aditua den erakunde batekin lankidetzan. Gainera, aurrekontuak ahalbidetzen bazuen, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) zentroek egindako banakako proiektuak aurkezteko aukera ireki zen.

Gipuzkoa Quantum Programaren 2022ko deialdiak (aurkezteko epea urriaren 31n amaitzen zen) aurreikuspen baikorrenak gairitu zituen. Aurrekontua handitu eta 19 enpresa eta eragilek garatu beharreko 14 proiektu babestu ziren arren, enpresek aurkeztutako proiektu batzuk eta ZTBESko zentroetako banakako proiektu guztiak finantzaketarik gabe geratu ziren, deialdiaren aurrekontua agortu zelako. Gainera, ZTBESko zentroen eta zenbakeoetan aditua den erakunde baten arteko lankidetzaproiektuak egiteko interesa hauteman zen eta tipologia hori ez zen deialdian jaso.

Horregatik guztiagatik, beste deialdi bat jarri da abian, garatzen ari diren eta erantzun ezin izan diren kuantikaren eremuko ekimen horiei erantzun ahal izateko. Horregatik, hain zuzen, oinarrien aldaketa bat jasotzen da, batetik, zentroen eta erakunde adituen arteko lankidetzaproiektuei estaldura emateko, eta, bestetik, laguntzak emateko lehenetsiak ezartzeko, ahalik eta erakunde gehienei sarbidea emanez, enpresara bideratutako lankidetzaproiektuak babesteko helburu nagusiari eutsiz, lankidetzaproiektuen tipologia berria jasoz, eta, azkenik, zentroei teknologia horien ikerketan aurrera egiteko aukera emango dieten banakako proiektuei sarrera emanez.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA,
TURISMO Y MEDIO RURAL

Modificación de las bases reguladoras y convocatoria de 2023 del programa de subvenciones Gipuzkoa Quantum.

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 21 de febrero de 2023:

Mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 26 de julio de 2022, se aprobaron las bases reguladoras y la convocatoria para 2022 del programa de ayudas Gipuzkoa Quantum, con el objetivo de apoyar el desarrollo de las tecnologías cuánticas a través del apoyo a proyectos de I+D. Este Programa se encuadraba en el marco de una estrategia de la Diputación Foral de Gipuzkoa que, en línea con el Gobierno Vasco, pretendía hacer de Euskadi un referente en estas tecnologías.

Aunque se trata de tecnologías aún por desarrollar, Gipuzkoa tenía grupos de investigación trabajando en el ámbito de la cuántica y una start-up con un importante potencial de crecimiento. En septiembre de 2021, se firmó un protocolo de actuación con el Gobierno Vasco para impulsar el Polo de Tecnologías Cuánticas en San Sebastián, y ese mismo año, se definió una estrategia para avanzar hacia el objetivo planteado y se apoyaron proyectos de investigación. En 2022 se dio un paso más, hacer que esas tecnologías llegaran al tejido empresarial. Con esa finalidad principal se puso en marcha el programa Gipuzkoa Quantum, orientado en primera instancia a apoyar proyectos de I+D de empresas o sus Unidades de I+D empresarial en colaboración con una entidad experta en tecnologías cuánticas. Además, si el presupuesto lo permitía, se abrió la posibilidad de presentar proyectos individuales realizados por centros de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación (RVCTI).

La convocatoria 2022 del Programa Gipuzkoa Quantum, con un plazo de presentación que finalizaba el 31 de octubre, superó las previsiones más optimistas. A pesar de que se amplió el presupuesto y de que se apoyaron 14 proyectos a desarrollar por 19 empresas y agentes, algunos de los proyectos desarrollados por empresas y todos los proyectos individuales de los centros de la RVCTI quedaron sin financiación por agotarse el presupuesto de la convocatoria. Además, se detectó interés por realizar proyectos de colaboración entre los centros de la RVCTI y una entidad experta en cuántica, tipología no contemplada en la convocatoria.

Por todo lo anterior, se pone en marcha una nueva convocatoria que permita dar respuesta a estas iniciativas en el ámbito de la cuántica que se están desarrollando y que no han podido atenderse. Por ello, se recoge una modificación de las bases reguladoras que, por un lado permita dar cobertura a los proyectos de colaboración entre centros y entidades expertas, y por otro, establezca las prioridades a la hora de otorgar las ayudas, dando acceso al mayor número posible de entidades, manteniendo el objetivo principal de apoyar proyectos en colaboración orientados a la empresa, recogiendo la nueva tipología de proyectos en colaboración, y finalmente dando entrada a proyectos individuales que ofrezcan a los centros la posibilidad de avanzar en la investigación en estas tecnologías.

Dirulaguntza hauek Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude. Hala ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2023. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2022 Foru Arauaren arabera eguneratu ahal izango da.

Horregatik, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneke Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

ERABAKITZEN DU

Lehenengo. Aldatzea Gipuzkoa Quantum programako dirulaguntzen oinarri arautzaileen 3. eta 8.9. oinarriak eta indargabetzea 6.3 oinarria, erabaki honen I. eranskinean ezarritako baldintzetan. Aldatzen diren oinarriak Diputatuen Kontseiluak 2022ko uztailaren 26an onetsi zituen (2022ko abuztuaren 30eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 165. zk.) eta, ondoren, Diputatuen Kontseiluko 2022ko irailaren 20ko erabakiaren bidez aldatu ziren (2022ko irailaren 29ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 165. zk.).

Bigarren. Onestea dirulaguntza hauen 2023ko deialdia, erabaki honen II. eranskinean jasota dagoena.

Hirugarren. Baimentzea 1.122.600 euroko gastua, deialdi hau gauzatzeko, honako kontu sail hauen kargura:

1.0420.200.770.00.02.2023: 270.000 €.

1.0420.200.781.00.12.2023: 630.000 €.

5.0420.200.770.00.02.2024: 66.780 €.

5.0420.200.781.00.12.2024: 155.820 €.

Aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak onetsitako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du, deialdi berri bat egin gabe. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzeko.

Laugarren. Erabaki honek onesten dituen oinarri arautzaileek ondorioak izango dituzte Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egun beretik aurrera.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio-bideari amaiera ematen dio. Interesdunek erabakiaren kontrako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahaliko diote, zuzenean, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari, bi hilabeteko epean, argitalpenaren biharamunetik hasita.

Hala ere, aldeztu aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahaliko diote Diputatuen Kontseiluari, hilabeteko epean, argitalpenaren biharamunetik hasita. Kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu berraztertze errekurtsoari espresoki erantzun arte edo ustezko ezestea gertatu arte. Horrez guztiaz gain, egokitzen jotako beste errekurtso oro aurkeztu ahaliko da.

Donostia, 2023ko otsailaren 28a.—Segundo Díez Molinero, Departamentuko idazkari teknikoa. (1492)

I. ERANSKINA

2022ko uztailaren 26an Diputatuen Kontseiluak onartutako (2022ko abuztuaren 30eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 165. zk.) Gipuzkoa Quantum dirulaguntza programaren oinarri arautzaileen aldaketa. Oinarri horiek Diputatuen Kontseiluak 2022ko irailaren 20an aldatu zituen (2022ko irailaren 29ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 185. zk.).

Indarrrik gabe uzten da Gipuzkoa Quantum dirulaguntza programaren 6.3. oinarria.

Estas subvenciones se encuentran incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES) de la Diputación Foral de Gipuzkoa, sin perjuicio de su actualización conforme a la Norma Foral 6/2022, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2023.

En consecuencia, a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural y previa deliberación, el Consejo del Gobierno Foral

ACUERDA

Primero. Modificar las bases 3.^a y 8.9 y dejar sin efecto la base 6.3 de las bases reguladoras de las subvenciones del programa Gipuzkoa Quantum, aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 26 de julio de 2022 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 165 de 30 de agosto de 2022) y modificadas posteriormente por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 20 de septiembre de 2022 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 185 de 29 de septiembre de 2022), en los términos establecidos en el anexo I que se acompaña al presente acuerdo.

Segundo. Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2023 de las citadas subvenciones, que se acompaña como anexo II al presente acuerdo.

Tercero. Autorizar un gasto por importe de 1.122.600 euros para hacer frente a esta convocatoria con cargo a las partidas:

1.0420.200.770.00.02.2023: 270.000 €.

1.0420.200.781.00.12.2023: 630.000 €.

5.0420.200.770.00.02.2024: 66.780 €.

5.0420.200.781.00.12.2024: 155.820 €.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

Cuarto. Las bases reguladoras que se aprueban en virtud del presente acuerdo surtirán efectos desde el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra el recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 28 de febrero de 2023.—El secretario técnico del Departamento, Segundo Díez Molinero. (1492)

ANEXO I

Modificación de las bases reguladoras del programa de ayudas Gipuzkoa Quantum, aprobadas por acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 26 de julio de 2022 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 165 de 30 de agosto de 2022), y modificadas posteriormente por acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 20 de septiembre de 2022 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 185 de 29 de septiembre de 2022).

Se deja sin efecto la base 6.3 del programa de ayudas Gipuzkoa Quantum.

Era berean, dirulaguntza-programa horren 3. eta 8.9. oinarri arautzaileak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

3. oinarria. Diruz lagundutako jarduerak.

Laguntzak teknologia kuantikoen arloko I+G proiektuak oso-ri edo zati batean finantzatzeko erabiliko dira.

Enpresek edo haien I+G unitateek aurkeztutako proiektuen kasuan, ZTBESko beste enpresa edo zentro batekin lankidetzan egin beharko dira nahitaez, teknologia horietan esperientzia dutela egiaztatzen dutenak.

ZTBESko zentro batek eta erakunde aditu batek lankidetzan jarduten duten proiektuak aurkeztu ahal izango dira. Gehienez ere lankidetzako proiektu bat aurkeztuko da ZTBESko zentro bakoitzeko.

Deialdi honen ondorioetarako, lankidetzako dagoela ulertuko da: laguntzen duen erakunde aditua (teknologia horietan esperientzia duen enpresa edo ZTBESko zentroa) proiektuaren aurrekontu osoaren gutxienez % 30arekin kontratatzen denean, edo erakunde laguntzaile horrek gutxienez 30.000 euroko ekarpena egiten duenean.

Gainera, beste enpresa edo erakunde batzuek ere lankidetzan jardun ahal izango dute. Kasu horretan, ez dira aplikatuko aurreko paragrafoan ezarritako mugak.

ZTBESko zentroek, enpresetako I+G Unitateek izan ezik, proiektuak banaka aurkeztu ahal izango dituzte. Gehienez ere banakako proiektu bat aurkeztuko da ZTBESko zentro bakoitzeko.

8. oinarria. Dirulaguntzen portzentajeak eta gehieneko zenbatekoak.

8.9. Enpresek edo enpresetako I+G unitateek lankidetzan aurkeztutako proiektuak lehenetsiko dira, baldin eta programa honen aurreko deialdian laguntzarik jaso ez badute. Beraz, lehenengo eskaera horiei erantzungo zaie. Enpresa edo I+G unitate bakoitzeko proiektu bat baino gehiago aurkezten bada, baloraziorik handiena duenari emango zaio laguntza lehenik.

Dirulaguntza eskaera horiek lagundu ondoren aurrekontuak badago, ZTBESko zentroek lankidetzan aurkeztutako eskaerak baloratu eta kontuan hartuko dira.

Aurreko eskaera horiek lagundu eta gero oraindik aurrekonturik badago, aurreko deialdian dirulaguntza lortu duten enpresen eta enpresetako I+G unitateen proiektu berriak baloratuko dira, eta deialdi honetara aurkeztu diren mota horretako bigarren proiektuak hartuko dira kontuan.

Azkenik, esleitu gabeko aurrekontu-soberakinik badago, ZTBESko zentroen banakako proiektuei erantzungo zaie.

II. ERANSKINA

Gipuzkoa Quantum Programako dirulaguntzen 2023ko Deialdia.

1. Xedea eta oinarri arautzaileak.

Gipuzkoa Quantum programako dirulaguntzen 2023ko deialdia egitea.

Gipuzkoa Quantum programaren dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak Diputatuen Kontseiluak 2022ko uztailaren 26ko erabakiaren bidez onartutakoak dira (2022ko abuztuaren 30eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 165. zk.). Oinarri arautzaile horiek Diputatuen Kontseiluak aldatu ditu 2022ko irailaren 20ko erabakiaren bidez (2022ko irailaren 29ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 185. zk.) eta baita 2023ko otsailaren 21eko erabakiaren bidez ere (azken aldaketa hori deialdi honekin batera argitaratzen da).

Asimismo, se modifican las bases reguladoras 3.^a y 8.9 del citado programa de ayudas, quedando redactadas de la siguiente manera:

Base 3.^a Acciones objeto de subvención.

Las ayudas se destinarán a financiar total o parcialmente proyectos de I+D en el ámbito de las tecnologías cuánticas.

En el caso de los proyectos presentados por empresas o por sus Unidades de I+D, estos deberán realizarse necesariamente en colaboración con otra empresa o centro de la RVCTI, que acrediten experiencia en estas tecnologías.

También podrán presentarse proyectos en los que colaboren un centro de la RVCTI y una entidad experta. Se presentará un máximo de un proyecto de colaboración por centro de la RVCTI.

A efectos de esta convocatoria se considera que existe colaboración cuando: o bien haya una contratación a la entidad experta que colabora (la empresa o el centro de la RVCTI, con experiencia en estas tecnologías) de al menos un 30 % del presupuesto total del proyecto; o bien que esta entidad colaboradora contribuya con al menos 30.000 euros.

Además, podrán colaborar también otras empresas o entidades. En este caso no serán de aplicación los límites establecidos en el párrafo anterior.

Los centros de la RVCTI, con excepción de las Unidades de I+D empresarial, podrán presentar proyectos de forma individual. Se presentará un máximo de un proyecto individual por centro de la RVCTI.

Base 8.^a Porcentajes y cuantía máxima de las subvenciones.

8.9. Se priorizarán los proyectos presentados por empresas o Unidades de I+D empresarial en colaboración y que no hayan obtenido ayuda en la convocatoria anterior de este Programa, por lo que se atenderá primero a estas solicitudes. En caso de que se presente más de un proyecto por empresa o Unidad de I+D empresarial, se concederá en primer lugar la ayuda al que tenga mayor valoración.

Si una vez atendidas existe presupuesto, se valorarán y se atenderán las solicitudes presentadas por los centros de la RVCTI en colaboración.

Atendidas estas solicitudes, si aún hay presupuesto, se valorarán los nuevos proyectos de empresas y Unidades de I+D empresarial que han obtenido subvención en la convocatoria anterior, y se considerarán los segundos proyectos de este tipo que se hayan presentado a esta convocatoria.

Finalmente y si existe remanente presupuestario sin adjudicar, se atenderán los proyectos individuales de los centros de la RVCTI.

ANEXO II

Convocatoria de 2023 de las ayudas del Programa Gipuzkoa Quantum.

1. Objeto y bases reguladoras.

Convocar para el año 2023 las subvenciones del programa Gipuzkoa Quantum.

Las bases reguladoras para el otorgamiento de las subvenciones del programa Gipuzkoa Quantum son las aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 26 de julio de 2022 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 165, de 30 de agosto de 2022), modificadas posteriormente por acuerdos de Consejo de Gobierno Foral de 29 de septiembre de 2022 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 185, de 29 de septiembre de 2022) y por acuerdo de 21 de febrero de 2023. Esta última modificación se publica junto con la presente convocatoria.

2. Finantzaketa.

2.1. Guztira deialdi honetan emango diren laguntzen zenbatekoa 1.122.600 eurokoa da, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorreko ondorengo kontu sailen kargura:

1.0420.200.770.00.02.2023: 270.000 €.

1.0420.200.781.00.12.2023: 630.000 €.

5.0420.200.770.00.02.2024: 66.780 €.

5.0420.200.781.00.12.2024: 155.820 €.

2.2. Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleitura duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzeara.

3. Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasiko da. Epe hori amaituko da 2023ko martxoaren 27ko 13:00etan.

4. Jarduerak hasteko eta gauatzeko epea.

Diruz lagundutako jarduerak eskaera aurkezten den egunetik aurrera hasiko dira.

Jarduerak 2024ko apirilaren 18a baino lehen bukatuko dira.

5. Eskaerarekin batera aurkeztu behar diren agiriak.

a) Erantzukizun aitortpena, eranskinean edo bide telematikoz egindako eskaeran dagoen ereduari jarraituz, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan ezarritako onuradun izatera lortzeko ezein debekurik ez izatearena. Ez eta Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenak ezarritakoari jarraikiz, sexu diskriminazioa egiteagatik desgaitasuna edo lege debeku kasuren batean izatearena ere.

b) Halakorik izanez gero, eskatzaileak edozein administrazioi edo estatu zein nazioarte mailako entitate publiko nahiz pribaturi eskatutako edo haiengandik eskuratutako dirulaguntzen, sarreraren edo baliabideen adierazpena, estatutakoekin bateraezina diren dirulaguntzak aipatuz.

c) Erakunde onuradun izateko 2.1 oinarrian jasotako baldintzak betetzeari buruzko adierazpena.

d) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko egiaztapenaren justifikazioa, hala badagokio.

e) Proiektuaren aurrekontu xehatua, aurreikusitako gastuen izaera zehaztuta. Funtsezko ikerketako, ikerketa industrialeko edo garapen esperimentaleko zereginei dagozkien zehaztuko da. Ez dira 200 eurotik beherako gastuak aurkeztuko. Proiektuaren guztizko aurrekontuaz gain, lankidetzaproiektu baten kasuan, parte hartzen duen erakunde bakoitzari dagokiona zehaztuko da.

f) Proiektuaren memoria, proiektuaren helburuak eta horiek lortzeko beharrezkoak diren faseen, jardueren edo zereginen deskribapena jasoko dituen. Zeregin bakoitzerako, funtsezko ikerketa, ikerketa industriala edo garapen esperimentala den zehaztuko da. Memoriak planing bat izango du, eta bertan, hasiera eta amaiera-data jasoko dira. Proiektuan lan egingo duten pertsonak eta haien profila eta esperientzia zehaztuko dira. Lankidetzaproiektu baten kasuan, erakunde bakoitzak proiektu horretan duen zeregina azalduko da.

2. Financiación.

2.1. La cuantía total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de 1.122.600 euros con cargo a las siguientes partidas de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

1.0420.200.770.00.02.2023: 270.000 €.

1.0420.200.781.00.12.2023: 630.000 €.

5.0420.200.770.00.02.2024: 66.780 €.

5.0420.200.781.00.12.2024: 155.820 €.

2.2. El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

3. Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo para la presentación de las solicitudes se iniciará al día siguiente de la publicación de esta convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y finalizará a las 13:00 horas del 27 de marzo de 2023.

4. Plazo de inicio y ejecución de las actuaciones.

Las actuaciones objeto de la subvención deben iniciarse a partir de la presentación de la solicitud de ayuda.

Las actuaciones se concluirán antes del 18 de abril de 2024.

5. Documentación que acompaña a la solicitud.

a) Declaración responsable, conforme al modelo que se incluye en el anexo o en la solicitud telemática, de no hallarse incurso en cualesquiera de las prohibiciones para obtener la condición de entidad beneficiaria establecidas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, ni en prohibición legal o inhabilitación por discriminación por razón de sexo, de conformidad con lo dispuesto en la disposición final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.

b) Declaración, en su caso, de las subvenciones, ingresos o recursos que la entidad solicitante hubiese solicitado u obtenido para la misma finalidad, procedente de cualquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, indicando las subvenciones que resulten incompatibles con las solicitadas.

c) Declaración del cumplimiento de las condiciones para ser entidad beneficiaria que se recogen en la base 2.1.

d) Justificación de la acreditación en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, en su caso.

e) Presupuesto detallado del proyecto, en el que detalle la naturaleza de los gastos previstos. Se especificará si corresponden a tareas de investigación fundamental, de investigación industrial o de desarrollo experimental. No se presentarán gastos inferiores a 200 euros. Además del presupuesto total del proyecto, en el caso de un proyecto en colaboración, se especificará lo que corresponde a cada una de las entidades que participan.

f) Memoria del proyecto, que contenga los objetivos del mismo y la descripción de las fases, actividades o tareas necesarias para alcanzarlos. Para cada tarea se especificará si se trata de investigación fundamental, de investigación industrial o de desarrollo experimental. La memoria contendrá un planing en el que consten las fechas de inicio y finalización. Se especificarán las personas que trabajarán en el proyecto y su perfil y experiencia. En el caso de los proyectos en colaboración se explicará el papel de cada entidad en el mismo.

g) Erakunde parte-hartzailearen edo parte-hartzaileen deskribapena. Lankidetzaproiektuen kasuan, labur-labur deskribatuko da enpresa parte-hartzaileen jardura, eta enpresa edo erakunde laguntzaileari eskatzen zaion esperientzia justifikatuko da, kuantikari dagokionez. Halakorik izanez gero, erakundeak euskararen erabilera sustatzeko egiten dituen ekintzen deskribapena eta enpresak gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunari dagokionez duen estrategia jasoko dira. 6. oinarrian ezarritako irizpideak baloratzeko behar den informazio guztia emango da.

6. *Eskaerak ebazteko eta jakinarazteko epea.*

Dirulaguntza emateko ala ukatzeko ebazpena eta horren jakinarazpena egiteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita.

Erabakia eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio, eta, horrez gain, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 17. artikuluari jarraiki.

Onuradunak 10 egun naturaleko epea izango du, jakinarazpenaren datatik aurrera, dirulaguntza onartzeko. Kontrakoa berriaz jakinarazten ez bada, tazituki onartutzat joko da.

Onuradun izateko baldintza administratibo eta teknikoak bete arren, aurrekontu kreditua agortu delako dirulaguntza jasoko ez duten entitateak itxarote zerrendan geldituko dira, emandako dirulaguntzetakoren bati uko egingo balitzaio.

7. *Borondatezko itzulketa.*

Onuradunak borondatezko itzulketa egin nahi badu, idatzi bat bidali behar dio Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko foru diputatuari 16.4 oinarrian zehazten den moduan.

g) Descripción de la entidad o entidades participantes. En el caso de los proyectos en colaboración se describirá brevemente la actividad de las empresas participantes y se justificará la experiencia en cuántica exigida a la empresa o entidad colaboradora. Se incluirá, de haberlas, una descripción de las acciones que realice la entidad para promover el uso del euskera, así como la estrategia de la empresa en relación con la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres. Se aportará toda la información necesaria para la valoración de los criterios establecidos en la base 6.^a

6. *Plazo de resolución de las solicitudes y notificación.*

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución de concesión o, en su caso, de denegación será de 6 meses, a contar a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria.

Dicha resolución se notificará individualmente a cada solicitante, sin perjuicio de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa en los términos del artículo 17 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La entidad beneficiaria dispondrá de un plazo de 10 días naturales a partir de la fecha de notificación para aceptar la subvención que se entenderá tácitamente aceptada si no existe comunicación expresa en contrario.

Las entidades que, aun reuniendo las condiciones administrativas y técnicas para adquirir la condición de beneficiarias, no hayan obtenido subvención por haberse agotado el crédito presupuestario, quedarán en lista de espera para el caso en que algunas de las subvenciones concedidas quedaran sin efecto por renuncia.

7. *Devolución voluntaria.*

En el caso de que la beneficiaria proceda a la devolución voluntaria, dirigirá un escrito al diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, tal y como señala la base 16.4.



Gipuzkoa Quantum Programa

Programa Gipuzkoa Quantum

ESKAERA / SOLICITUD

Espedientea

Expediente

Data

Fecha

Sarrera kodea

Código acceso

ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DEL SOLICITANTE

Eskatzailearen izena Nombre del solicitante		Sexua Sexo	
IFZ NIF		Posta Kodea Código Postal	
Helbidea Dirección		Ataria/Solairua Portal/Piso	
Herria Localidad		Lurralde Historikoa Territorio Histórico	
Helbide elektronikoa Correo electrónico		Telefonoak Teléfonos	
Kontua Cta Cte.		Faxa Fax	

HARREMANETAKO PERTSONAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA DE CONTACTO

Pertsonaren izena Nombre de la persona		Sexua Sexo	
IFZ NIF		Posta Kodea Código Postal	
Helbidea Dirección		Lurralde Historikoa Territorio Histórico	
Herria Localidad		Telefonoak Teléfonos	
Helbide elektronikoa Correo electrónico		Faxa Fax	



Onuradun izatearen aitortpena / Declaración de condición de persona beneficiaria

Aitortzen dut ez ni ezta nik ordezkatzeko dudako entitatea ere ez gaudela sartuta martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusten dituen onuradun izaera lortzea eragozten duten egoeratan. Aldi berean, entitatea ez dago otsailaren 18ko 4/2005 Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak aurreikusten dituzten onuradun izateko debeku egoeraren batean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere eskumenak egikaritzuz, beharrezko egiaztapenak egingo ditu, zerga betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarenak beteak dituela ziurtatzeko

☐

Ez dut baimenik ematen eskumena duten organoek laga diezaioten dirulaguntza kudeatzen duen administrazio publikoari enpresari buruzko zerga arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duen agiria.

Declaro que no concurren en mí ni en la entidad a la que represento ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Asimismo, tampoco se encuentra sometida a ninguno de los supuestos de prohibición para ser beneficiaria de subvenciones previstos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero de 2005, para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.

La Diputación Foral de Gipuzkoa efectuará en el ejercicio de sus competencias las verificaciones necesarias para comprobar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

☐

No autorizo para que los órganos competentes procedan a ceder a la administración pública gestora de la subvención la acreditación de cumplimiento con sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

Datu pertsonalen tratamendua / Tratamiento de datos personales

Datu pertsonalen tratamenduak xede izango du dirulaguntzak eman, kudeatu eta haien jarraipena egiteko prozedurak izapidetzea, hala agintzen baitute 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak eta 4/2019 Foru Arauak, martxoaren 11koak, Gobernu Onari buruzkoa, foru gobernantza publikoaren esparruan. Xede horren oinarri dira deialdiaren interes publikoa eta bertan parte hartzeko eskaera.

Datuak gordeko dira dirulaguntza emateko prozedura eta aurkez daitezkeen erreklamazioak izapidetzeak irauten duen bitartean.

Tratamenduaren arduradun izango da deialdia kudeatzen duen zuzendaritza nagusia, eta haren aurrean erabili ahal izango dituzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatze, mugatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak, hari zuzendutako idatzi bidez. Datu pertsonalen tratamenduari eta eskubideen erabilerari dagokienez, harremanetan ere jar zaitezke helbide honetan: dbo@gipuzkoa.eus.

Los datos de carácter personal serán objeto de tratamiento con la finalidad de tramitar los procedimientos de concesión, gestión y seguimiento de las subvenciones, en cumplimiento de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y de la Norma Foral 4/2019, de 11 de marzo, de Buen Gobierno en el marco de la gobernanza pública foral. Finalidad basada en el interés público de la convocatoria y en su solicitud de participación en ella.

Los datos serán conservados durante la tramitación del procedimiento de concesión de la subvención y de las reclamaciones que se puedan formular.

El responsable del tratamiento será la dirección general gestora de la convocatoria, ante la cual podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación y oposición, enviando un escrito dirigido al mismo. Por lo que respecta a las cuestiones relativas al tratamiento de sus datos personales y al ejercicio de sus derechos puede también ponerse en contacto en esta dirección: dbo@gipuzkoa.eus.



Komunikazio onartzea / Aceptación de comunicaciones

Onartzen dut eskaerari buruzko komunikazioetarako posta elektronikoa lehenestea. Nire gain hartzen dut eman dizuedan helbide elektronikoaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko ardura.

Acepto que las comunicaciones sobre la solicitud se hagan preferentemente por correo electrónico. Me responsabilizo del correcto funcionamiento de la dirección aportada.

PROIEKTU HONEK ESKATUTAKO/JASOTAKO BESTELAKO LAGUNTZAK OTRAS AYUDAS SOLICITADAS/CONCEDIDAS POR EL MISMO PROYECTO	Ditu	Ez ditu
	Tiene	No



<

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Turismoko eta Landa
Ingurune Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de Promoción
Económica, Turismo
y Medio Rural

_____ko _____(a)ren _____(a)
_____a _____de _____de
20
Izptua. (Sinadura eta zigilua) Fdo.: (Firma y sello)

Dokumentu hau sinatzen duenak bere gain hartzen du bertan adierazitakoaren erantzukizuna eta, orobat, dokumentuen zerrendako artxiboetan jasotako informazioarena (artxiboek CSV eta HASH kodeak dituzte).

EKS kodea (Egiaztapeneko Kode Ziurra) da Gipuzkoako Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoko zaindutako artxibo bat identifikatzen duena, eta haren egiazkotasuna web orrialde honetan kontsultatzea ahalbidetzen duena: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/csv>

HASH kodeak argi eta garbi identifikatzen du artxiboa, eta bermatzen du hura ez dela aldatu zaintzapean egon den bitartean.

La persona firmante se responsabiliza de lo declarado en el presente documento así como de la información contenida en los archivos relacionados en la lista de documentos identificados con sus respectivos CSV y códigos HASH.

El CSV (Código Seguro de Verificación) es el código que identifica un archivo custodiado en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y permite consultar su autenticidad en la siguiente dirección web: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/csv>

El código HASH identifica inequívocamente el archivo, y garantiza que éste no ha sido alterado durante su custodia.